

Dabilen pentsamendua bildumak Elkar Fundazioak Jakin Fundazioaren XX. eta XXI. mendeetako *euskal pentsamenduaren transmisioa* egitasmoari emandako 2017ko *Proiektuari Elkar Saria*-ren laguntza jaso du.

Azaleko irudia: Markos Ansorena
Diseinua: Ainhoa Lukas Odriozola

© Testua: Jose Luis Alvarez Enparantza, *Txillardegi*
© Hitzaurrea: Joan Mari Torrealdai
© Testu hautakera: Alaitz Aizpuru
© Argitalpen honena:
Jakin Fundazioa
UPV/EHU

ISBN: 978-84-949758-3-7
L. G.: SS 66-2019

Jakin
Martín Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 Andoain
Tel. 943 21 80 92

jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

UPV/EHU

Argitalpen Zerbitzua
Leioako Campusa
Sarriena auzoa, z/g
48940 Leioa
Tel. 94 601 20 00

info.editorial@ehu.eus
www.ehu.eus/argitalpenak

Eragortzia dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein berregintza, komunikazio publiko edo moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren titulartzen baimena eskuratzeko ez bada. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delituzat har daiteke (Kode Penaleko 270 eta hurrengo artikulua). CEDRO erakundeak (www.cedro.org) babesten ditu apatu eskubide horiek.

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak, S. L. Martín Ugalde Kultur Parkea. Andoain (Gipuzkoa)

EUSKARA BATUA

01 TX ILLARDEGI

Testu hautatuak

Testu hautatzailea: ALAITZ AIZPURU JOARIST

... (dabilen
pentsamendua

AURKIBIDEA

Hitzaurrea

Euskara (batua), herrigintzaren erdigunean (Joan Mari Torrealdai)	7
--	---

EUSKARA BATUAREN AITZINDARI

Ez bat eta ez beste (1956)	25
Karta idigia (1956)	31
Batasunaren bidea (1959)	37

BATASUNERAKO BIDEAN

Batasunerako bidean barrena (1970)	41
Bide bat behar (1972)	42
Euskara batuaren hastapenak (1992)	46

EUSKALKIEN AFERA

Euskalkietatik euskerara (1970)	53
«Eibartarra»ri gutun agiria (1971)	55
Una lengua para todos (1978)	58
Euskara batuaren beharra (1978)	62

SUSTRAI BILA. JATORTASUN BILA

Batasunaren bidea (1959)	65
Gainbehera halere (1969)	70
Euskaltzaleei mintzo (1974)	71
«Markiña zarra» (1980)	75
«Noski baietz!» (1995)	78

MUNDU MODERNO BATERAKO EUSKARA MODERNO BAT

Astetik astera (1965)	81
«Euskera, ire laguna!» (1968)	83
Aitzekiari ez aurrerakoan (1968)	84
Kataluñako berri (1970)	86
Gainditu egin behar (1970)	88
Oso zaila omen (1972)	90
Euskara batuaz. Hurrengo urratsetara behar (1976)	94

EUSKARA BATUA NAZIO PROIEKTU BATERAKO GILTZA

[Txillardegiren gutuna Euskaltzaindiari] (1963)	99
Euskotarrak utikan (1965)	105
Gure eginkizunaz (1967)	109
Liburugintza, prentsa eta idazlea hizkuntza zapalduetan (1986)	115
Batasunaren prozesuaren hasiera eta gaurko beharrak (1988)	117

EUSKARA BATAREN BIDEAN. AHOSKERA BATURA

Euskara batuaren geroa (1994)	119
Euskara Batuaren norabideaz (2006)	129

HITZAURREA

EUSKARA (BATUA), HERRIGINTZAREN ERDIGUNEAN

Joan Mari Torrealdai

POLIAITZINDARIA

Egia da, bai, XX. mendeko bigarren aldiko bidegurutze guztietan topo egiten dugula Txillardegirekin, kultura, hizkuntza, politikan, pentsamenduan. Poliaitzindaria deitzen dio J.L. Davantek. Batnator Joxe Azurmendiarekin: «Aro berria markatu duten intuizio erabakior guztien iturrietan Txillardegi topatzen dugu. Egia da historiak egiten duela jendea, Txillardegi ere bai. Baina historia ere jendeak egiten du. Eta Txillardegi XX. mende erdi hartako une gurutzaleetan Euskal Herriak behar zuen gizona izan da».

Atzera begiratu, gerraosteko uhin berriaren ekarpen nagusitatzat hartzen diren den-denak, dio Joxek, Txillardegiren ideiak eta ekimenak dira. Hauek zehazten ditu berak: «Nazio kontzeptuaren berrikuntza, politikoa (kritikoa abertzaletasun historikoarekin) hala soziala (abertzaletasuna eta sozialismoa uztartuz), internazionalismoa; mugimendu sozialen erupzioa (feminismoa, ekologia); hizkuntzaren garrantzia nazioarentzat, arrazarena edo historiarena baino lehen. Praktikan, euskararen batasuna eta normalizazioa bizirik iraun ahal dezan eta hizkuntza nazionala izan. Literatura berrikuntza, nobelan adibidez, edo zainahi gaitara zabaldu den saioan. Tradizioarekin etena eta pentsamenduaren modernizazioa, aitaren etxe zaharreko leihoak lehenengo aldian batez ere existentzialismora eta pentsalari kristau moderno frantsesetara zabalduz, gero nolanhiko ideietara. Euskaltzaleen munduaren lerrapena ezkerretrantz. Sozialismo demokratiko ala marxista-leninista iraul-

tzailerearen eztabaida. Erljiioaren kritika, gure kasuan nazional-katalizismoarena, eta azkenean horren eraberrikuntza edo arbuioa, eta moralaren askapena Elizaren eta tradizioaren menpetik...» ('Txillardegiren ohorez: ETaren zikloa', *Berrria*, 2011-11-19).

Hemen eta orain gure arreta mugatuagoa da, noski; gai jakin eta gutxi batzuetan zentratzen da, hala nola hizkuntzaren normalizazioa, hizkuntzaren garrantzia nazioarentzat, eta beten-beregi euskararen es-tandarizazioa edo batasuna.

Txillardegik, jakina, eta harekin batera belaunaldi oso batek, 56ko belaunaldiak, euskara herrigintzaren oinarrian, ardatzean edo mui-nean bertan jarria du. Aurreko abertzaletasunaren ereduari, *grosso modo*, arraza zen ardatza, eta euskararen lekua marjinala edo bazte-rrakoa zen.

Beraz, 56ko belaunaldiak euskarari aitortzen dion lekua jauzi-kualitatiboa da, herrigintzaren proposamenean bezainbeste hiz-kuntzarenean. Euskararen zentraltasuna faktore erabakigarria da. Aurrerantz horrek aldatzen du euskararen historia soziala. Eus-karak egiten gaitu euskaldun.

Belaunaldi horrentzat, edo horientzat, euskara ez da soilki arazo-linguistikoa edo filologikoa, soziala eta nazionala ere bada: Euskal Herriko hizkuntza, komunikazio hizkuntza, jakintzaren hizkuntza. Hizkuntza lantzea ez da soilki gramatikaz aritzea, baizik eta arazo-soziolinguistikoez, arazo sozialaz, arazo politikoaz, irakaskuntzaz, komunikazio tresnaz...

Euskara dago, hortaz, herri identitatearen eta eraikuntzaren er-digunean. Jakin Talde historikoak bere buruari onartu dio herrigin-tza euskalgintzatik egin izan duela. Txillardegiz beste hainbeste esan genezakeelakoan gaude.

EUSKARA ERDIGUNEAN

Euskaltzale aurrena

Txillardegiren pentsaeran argi dago euskara politikaren aurretik doa-la, baina ez gabe. Are: politikan sartzearen kausa ere euskara da.

Euskara eta politikaren arteko lotura nola uztartzen duen zehaz-teko orduan, egokiena bere formulazioak gordinean azaltzea irudit-zaigu, nola biografia hala konpromiso politikoa ulertzeko.

«Nire ardatza, ekintza mailan, euskara izan da. Euskal Herria euskararen herria da etimologikoki ere, eta euskara gabe ez dago Euskal Herririk. Borroka politikoa ondorio bat da. Euskara gabe Euskal Herririk ez dagoela pentsatzen dudalako sortu da planteaa-mendu politikoa bat. Euskarari indarra eman behar zaiolako, eta tresnak behar dituelako. Ni ez naiz euskaltzale bihurtu politikoki abertzalea naizelako, baizik eta alderantziz; ni euskaltzale nintzen, eta euskaltzale izateak logikaz eraman nau planteamendu politiko abertzaleetara » (*Berrria*, 2004-09-05).

«Gure herri borrokaren ardatza hizkuntz arazoa dela sinetsirik, alor horretan eman dut neure indarren zati handi bat: bai ikerkun-tzan, eta bai erabilpenaren bultzadan. Baina, horrekin batera, alda-keta politiko funtsezkorik gabe gure herriarenak egina duela seguru-egonik, iratzarkuntza politikoaren inguruko egitekoetan ere murgil-du izan naiz burubelarri» (*Euskal Herria helburu*, 1994).

«Euskarak eraman ninduen abertzaletasunera. Nire ustez, eus-kaltzale batek derrigorrez izan behar du abertzalea, ez baitago so-luziorik hori gabe. [...] *Zein bitarteko beharko lirateke etorkizunean euskararen biziraupena bermatzeko?* Estatu bat behar da...» (*Gara*, 2010-11-14).

«Oso azkar ohar-tu ginen euskararen auzia politikoa zela era-bat. [...] oraindik gazteak ginela ikusi genuen hori, 1950 inguruan, eta politikatik kanpo konponbide zaila zuela erabaki genuen, fran-kismoaren barruan ez zuela euskararen egoerak irtenbiderik, alde-batetik, eta bestetik hizkuntza baten auzia ez dela hiztunen boron-date kontua bakarrik, erakunde batzuen –unibertsitatea, prentsa, telebista– sostengua behar duela. [...] esango nuke gu 'kulturalismo a-politikoaren' aurka ginela. Sustraitik politika egoera aldatu gabe, abertzaletasunetik kanpo, euskararenak egin zuela ikusten genuen eta borroka politikoan sartu ginen bete-betean» (Joxean Agirre: *Hi-tza hitz. Txillardegirekin solasean*, 1996).

Euskararen aldeko konpromisoa

Laukoitza da gutxienez Txillardegik euskararekiko duen konpromisoa: pertsonala, linguistikoa, soziala eta politikoa. Maila guztiakoa.

Euskararen batasuna edo euskara trebatzea lau puntuetako bat da Txillardegiren baitan.

Hona mailak, bere hitzetan (*Euskal Herria helburu*, 1994):

1. *Euskara mintzabide*: «Guk, orduko gazte abertzaleok, geure herriaren eta geure kaletarren mintzabide bihurturik nahi genuen euskara. Hortxe somatzen zen bi euskaltzale belauenen arteko hauskunea».

2. *Euskara gaurko beharretara prestatu*: «Euskaraz bizi nahi genuenok geure hizkuntza kaletartzeko eta gaurkotzeko behar gorria senditzen genuen. Eta eginkizun hori, osoki zitzaigun lan teknikoa, euskalari-lana; iturrietara joaz, eta literatura zaharra eta herriaren mintzaira berrirakurriz eta berraztertuz sortu behar baitzen Euskara Batua famatu hura».

3. *Erabilpena bultzatu*: «Hizkuntzaren erabilpena bultzatu nahi genuen. Guk ez genuen ulertzen, esan dudanez, ezta onartzen ere, hizkuntza landu bai, baina gero eguneroko bizian erdaraz egiteko-tan. Euskaltzaleak erdaraz ari, kontraesan hutsa zitzaigun. Praxi eus-kaldunera bultzatzen gintuen honek; eta, beraz, aurreko euskaltzale askorekin, gehienekin egia esan, tope egitera; eta ezpai mingarritan trabatzera eta minberatzera».

4. *Euskararen arazoa, politika*: «Oso garbiki ikusten genuen euskararen arazoa politikoa zela erabat, eta politikatik at konpontzerik ez zegoela. Euskal eskola lortzeko, euskal unibertsitatea eraikitzeko, euskal prentsa bultzatzeko, administrazioan eta ekonomia-aren munda-
duan euskara sartzeko, 'politika' egin behar zela. [...] Eta borroka politikoa sartu nintzen ni ere».

Egia da euskararen aldeko ekintzailtza eta borroka politikoa elkarri lotuta ikusi zituela Txillardegik.

Baina batasunaren eraikuntza prozesu osoan ez dago bien arteko ez gurutzatzerik ez nahasterik, Txillardegiren dokumentuetan. Plano desberdinetan jotzen du, bakoitzari berea. Txosten, proposamen eta planteamenduak oro hizkuntzaren mailakoak dira, ez politikaren alorrekoak. Arestik ez bezala. Mitxelena kexu zen bata-

sunaren kontuetan Arestik etsaiak sortzen zituela lagunak erakarri ordez. Txillardegik ez.

Esana dudana gainera, hau da, alor bakoitza autonomiaz lan-tzen zuela, zehazki, hizkuntzalaritza, eredugarria da Baionako era-bakien kasua. Behin eta berriz kontatua dago zeinek hartu zuten parte: abertzale eta euskaltzale unibertsoko gehienek, denek ez esa-tearren. Nonbait esana du berak, indar abertzaleak (EA) eta abertzale-
le ezkertiarrek eta eliza.

EUSKARA ZERNAHITARAKO

Euskararen batasuna «avant la lettre»

«Giroa ez zegoen batere Euskara Batuaren alde ni euskal mundura-
jaio nintzenez; eta ez gutxiagorik ere. Eta, oro har, Euskaltzaindia-
ere ez».

Izan ere, euskara batuaren aurretik, terminologia kulturalaren-
gaia askatu behar izan zen. Kanpotik begiratuta ematen du horrek-
ez daukala euskara batuarekin zerikusirik. Sakona du, zuzena. Zer-
bestetik dira euskara trebatze, gaitze, modernotzearen saiok eta-
horien inguruko tirabirek azpian gordetzen dutena?

Hil ala biziko egoeran zegoen euskara, eta hil ala bizikoa zen eus-
kararen estandarizazioa. Bai. Baina horren pertzepzioa ez da lehen-
ordukoa. 50eko hamarkadan, gerraurretik oinordekotzan jasoriko-
eztabaidak estaltzen du batasunarena. Urte horietako polemika na-
gusia euskara garbia, euskara mordoiloa zen. Ez batak ez besteak-
irekitzen zioten aterik etorkizunari. Alderantziz. Arrazoi desberdi-
nengatik baina, biek ukatzen zioten garapena euskarari. Euskarak-
garbia behar zuelako, batek; eta euskarak 'herrikoa' behar zuelako,
besteak; ez batean eta ez bestean euskarak ezin zuen bere burua eli-
katu terminologia kulturalaren bidez, edo ez zuen horren premia-
rik. Kulturarik gabe, eta kultur terminologiarik gabe, euskara ezin-
zitekeen izan hiztun komunitate modernoaren hizkuntza, ordea.

Gerraoste luzean hizkuntzaren bi ulerkera zeuden elkarri guz-
tiz kontrajarriak: garbizalekeria eta «populismoa» (Villasanteren

terminologian). Garbizalekeria aranismoa da, terminologia-arrazakeria, hau da, arraza garbiaren teoria hizkuntzari egokitu. Baina bazuen horrek plegu bat, jatorra eta aldi berean mugatzailea. Orixe batek, esaterako, uste du erdaren laguntzarik gabe euskarak baduela hitz berriak sortzeko gaitasun nahikoa. Zertarako 'pasaporte' erdal hitza euskarazko 'igarobide' erabili ordez? Edota 'ildo'-k 'estilo' adieraz dezake. Eta horrela.

Txillardegi ez dator bat: ideia berriari hitz berria, eta kito.

Egia esan, kultur hizkuntza lantzeko orduan, biak dira traba: garbizalekeriak euskara pobrezia terminologikora kondentzen du; eta popularismoak kultur terminologia aintzat hartu ere ez du egiten. Horixe da gakoa. Eta horixe da belaunaldi berriek hartu duten bidea, euskara kultur tresna bihurtzea.

Garbizaleen aurka zuzen jotzen du Txillardegi.

Euskara batuaren aitzindariak (Krutwig, Villasante, Txillardegi, Mitxelena, Jakin Taldea eta beste) euskara garbi/mordoilo tirabiren eta polemiken sasiartetik ireki behar izan zuten bidea, eta lortu zuten: euskara gaurkotu egin behar zen, gaitu, osatu, modernotu, mintzabide bihurtu, euskaldun guztiontzat, gai eta funtzio guztietarako trebatu: teknika, filosofia, administrazioa, irakaskuntza...

1959ko Euskaltzaindiaren erabakiak urrea balio du. Modernizazioari bidea ixten zion traba nagusia libratu zuen, kultur terminologiari bedeinkazio akademikoa emanez. Purismoaren bizitza akademikoa hortxe bukatzen da, popularismoarena ere bai. Hitzetik hortzera erabili ohi zen mordoilokeriaren salakuntza. Ez erabili ohi zen hizkuntza mordoiloa zelako berez, baizik eta terminologia kulturalari bide ematen ziolako.

Testuinguru horretan ulertu behar da Euskaltzaindiak 1959an agertu zuen agiria. Euskara batuari bidea emateko tartea desataskatu zuen. Erdararik kultur terminologia onartuz, kultura euskaraz lantzeko ateak zabaldu zituen.

Eta, horregatixe, Jakinek, bere hamargarren zenbakiko editorialean, «Gidari zaitugu» esaten dio Euskaltzaindiari, Orixeri erretiratzion zion une berberean.

'Mekanika Ondulatoria' vs «egoera diglosikoan goxo»

Euskararen munduan sartu zenean euskara batuaren kezkarik ez zegoela irakurri diogu Txillardegiri oraintxe. Okerrago dena, amore emanda aurkitu zuen jendea, intelektualitate eta, horiekin batera, hiztun komunitatea. Ferroletik garbi ikusi du Txillardegi 1956an, Arantzazuko Biltzarrean egon gabe ere: «euskerak ezertarako balio ez duela ainbestetan entzunik, konplejua jarri zaigu». Alegia, frankismoaren ikuspegi linguistikoa barneratua dutela, herri xeheak ez eze, euskal inteligentsiak, karlistek eta abertzaleek parez pare. Aipatzen ditugun autore hauek pisu espezfiko eta berezia dute, euskaltzale eta abertzale izanik (Menéndez Pidal ezik, erreferentzia saihestezina baita). Euskara erasotzen ari zirenen aipua dozenaka ekar daitezke, baina lagin hau guztiz esanguratsua da, euskalgintzan autoritate aitortuak baitira autoreok.

Txillardegi, aldiz, 1956ko 'Karta idigia'-n, kontrako muturrean kokatzen du bere proposamena: «Edozein gauzatarako gai dela adierazi nai dugu, eta asieran beiak eta baserriak baziran euskeraren gai bakarra, Mekanika Ondulatoria ta Filosofía'ren aldera jo dugu gaur».

Ramón Menéndez Pidal (1921): «[Euskara batua] desprovisto de interés arqueológico y sin utilidad alguna para la cultura humana, hecho sólo por el pueril interés de poder decir en una lengua exótica lo que muy bien puede decirse en cualquiera de las dos grandes lenguas culturales del extremo occidental de Europa».

Justo Mokoroa Ibar (1935): «Y admitido como incuestionable, que, por un lado, *no hace falta*, y por otro, *tampoco es posible* hic et nunc escribir de todo en euskera; tengamos la franqueza y el valor de reconocer —prácticamente— que es un deber de patriotismo *aplazar y aun suspender el cultivo de nuestra lengua en ciertos ramos del saber*».

L.A. sigletan ezkutuan gelditu zaigun euskaltzalea (1949): «Ezin jarri dezakegu [euskara] español, prantzes, ingles eta beste erdera indartsuen mallan. Etxe lanetarako gai da ordea ta laguntza ta itzal aundia eman dezake oraindik urtetan eta urtetan Euskal-Erriari... [...] Gai oiek [fisika, kimika eta matematikak] eta beste goi jakituria erderari utzita ere euskerari gelditzen zaio bazter polita: etxe-barrerengoa, erri artekoa, Errelijioaren magal gozoa».

Aspaldiko (Antonio Maria Labaien, euskaltzain osoa) (1954): «Teoloji goitar, Kimika ta antzeako ikasteko beti jo bearko dugu erderara. Gure indar eta almenak neurtu gabe geiegi eskatzea kaltegarri litzaiguke agian. Apaltxo iraungo ba' genu ere pozik. Gure literatura 'quadrivium' otan sartuko nuke: 1) Kristau-ikasbide ta erlisioa. 2) Erri-jakintza (ipui, kanta, komeri, bertso ta ele-berri). 3) Gauzen ikaskizunak. 4) Szientzi Matematikaren apur eta oñarriak, astapenak alegia».

Nikolas Ormaetxea *Orix*e (1959): «Ba-du euskerak bere edertasuna non agertu: ele-eder edo literaturan, izate-gaietan edo metapisikan, eder-legeetan edo estetikan, izkeran edo gramatikan. Utzi detzagun kimika ta olakoak, oriek ez baitira giza-izkuntza yatorra. Oriek ez dute batera edertu ñongo izkuntzarik. Itsusitu bai gogotik [...] Ortara ezkerro, ikingai oriek erabilli detzagun beste edozein izkuntzetan».

Bistan da, Txillardegiren 'Mekanika Ondulatoriak' euskaraz ez du lekurik Orixeren unibertsoan.

Sozialki ezina omen da, linguistikoki absurdoa edota estetikoki itsusia, kontua da euskararen funtzio publikoak oro (eskola, kalea, literatura) murriztu egiten direla. Euskara ezdeus bihurtzeraino.

Iritzi horien atzean zer ezkatzen da?

Bat, nagusia, frankismoaren hizkuntz politika, edo horren eragina. Noiz hilko dagoen gizarte multzo jakin baten hizkuntza pribatua da euskara, jazarria, eskolagabea, ofizialtasun eta publikotasunik gabea. Kultur estatusa espresuki ukatzen zaio euskarari.

Bi, Euskal Herriaren egin duelako pertzepzioa; horregatik ondarearen bilketaren lehentasuna, guztiz desagertu aurretik. Justo Mokoroa *Ibar*-ek dio berandu baino lehen euskararen inbentario erraldoi bat egin behar dela, hiztegia, lokuzioak, folklorea, literatur ekoizpena bildu eta sistematizatu. «Operación de salvamento indirecto» deitzen du.

Eta hiru, literatura landuaren apologia puztua. Euskararen, euskal kulturaren eta ia Euskal Herriaren salbazioa literaturatik eta bereziki poema nazionaletik bakarrik etor bide zitekeen Eusko Pizkundearen. Aitzolek bultzatu zuen Orixe poema nazionalari ekitera, *Euskaldunak* izango zena, 1934an bukatua eta 1950ean argitaratua. Beranduegi.

Villasante kexu da, uste baitu literaturan indar gehiegi jarri dela, eta gutxi, gutxiegi, kultura: «Los cultivadores profesionales del vascuence han dado excesiva y casi exclusiva importancia al cultivo de la bella literatura, y se ha desatendido ese otro aspecto práctico, tan necesario».

Bizitza erreala, alegia, beste nonbait dela, eta horri erantzun behar diola euskararen berrikuntzak, biziko bada: «No olvidemos que lo que ocupa la mayor parte de la vida de los hombres es la práctica con sus exigencias imperiosas y urgentes: ciencia, comercio, industria, información, religión, etc».

Kontra ateratzen zaio herrikide eta erlijioikide duen Ignacio Ormaetxebarria: «La vida del euskera depende, por lo mismo, más de la bella literatura que de la admisión incontrolada de términos extraños».

Orixek Ormaetxebarria txalotzen du. Horra.

EREDU BERRIA ZEHAZTEN

Bilboko Biltzarra (1958)

«Berririo Euskaltzaleen Biltzarra biltzekotan zegoela ikasi nuen. Eta txosten zehatz bat aurkeztea erabaki nuen», dio Txillardegik 1958an Bilbon egin zenaz. 'Batasunaren bidea', horra txostenaren izen esan-guratsua.

Txosten hori batasunaren bidean mugarri bat da, Baionaren aurrerari hurbila eta Arantzazukoarena ere bai. Esan dezakegu, esan dezakegunez, bata eta bestea txosten horretan oinarritzen direla.

Bestalde, Txillardegiren beraren ibilbidean ere munta handikoa da. Ezohikoa baita Txillardegi batek honela baloratzea bere ekarpena: «1958ko abenduaren 3ko txostenari nagokiolarik, garrantzitsutzat daukat Batuaren aldeko neure borroka pertsonalean». Aitorpen hori, 1994an egina (*Euskal Herria helburu* liburuan), ez da ahuntzaren gauerdiko eztopia.

Txostenak batasunik eza salatzen du, anarkiaren sustraia zedarrizten, autore zaharren balioa azpimarratzen, eta batez ere litera-

turako euskalkiaren beharra gogorarazten, deklinabidea eta aditza batzeko beharra, eta abar.

Bileraren gai nagusia lexikografia, lexikologia zen, euskaltzaleen arteko liskar gune nagusia urte haietan; biltzar horretan aurkeztu zuen Mitxelena bere proposamena, hurrengo urtean Euskaltzaindiak onartu eta jendartera zabalduko zuena, guztiz garrantzitsua, desblokeoarena: 'Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz'.

Lexikoaren gaiari ere heltzen dio Txillardegi bere txostenean, baina urrats bat harago doa batasun eredu zehatz bat aurkezten duelarik.

Txostenaren bigarren zatian garatzen ditu bere proposamen zehatzak puntu: literaturako euskalkia, deklinabidea, aditza, joskera, sufijazioa, hitz berriak, erdaratiko hitzak euskara bizian, hitzen egokitasuna, literaturako euskararen ortografia, herri euskalkiak. Horixe bai zenezari adarretatik helztea.

Txillardegiren proposamenetan lehenak 'Literaturako euskalkia' du izenburu. Villasanteren eta Mitxelena ideiak baliatzen ditu. Villasanterekin uste du euskara biziari heldu behar zaiola, batetik eta bestetik euskaldun ikasientzat kultur mailako idatziak behar direla euskaraz, eta ikasien gisa idatzi. Eta, Mitxelena segika, literaturako euskalkia aukeratzeko bi irizpide kontuan hartzen ditu: alde batetik, euskalkirik jatorrenari begiratu, sena salbatzeko. Eta, bestetik, hori hala izanik ere, gure egoerak onar dezakeenari ere begiratu. «Horregatik –dio–, Oiartzun, Sara eta Elizondo'ko euskera artzen dut eredutzat». Alegia: «Auei begiratuta saiatuko naitaizue ni, beraz, nere ontan. Ez da erraza guziz asmatzea; baña oñarrietan beintzat bide ona ikus ditekela nago. Duvoisin'en eta Mendiburu'ren artean mugituko naiz, nik uste: Axular aukeratuko nuke gogoz, bere euskera bezelakorik ezpaitago inundik ere. Baña, zaharregia dala-ta, Duvoisin artu dut bere orde, eta Mendiburu oiartzuarra».

Kontuak kontu, diogun bezala, proposamen hori ez da guztiz originala. Testuan bertan agertzen dira bere zorrak; baina, gainera, *Euskal Herria helburu* liburuko bere memoriaren argiro aitortzen du Mitxelena berekiko zorra: «Mitxelena oso maiz Diputazioan gurutzen nuen, eta bere liburu eta separata guztiak argitaratu ahala eskaintzen zizkidanez, normala da Bilbora eramanez nuen lan hartan

Mitxelena ideien oihartzuna garbiki segi ahal izatea. Maileguen egokikuntza fonologikoaz ematen nituen adibide zerrendak, Mitxelena emandako zerrendetan funtsatuak dira orpozo orpo, adibidez».

Gauzak horrela, ez da harrizkoa Mitxelena bere adostasuna artean bertan azaldu izana, hitzaldiaren ondoren.

Adostasun hori, zertan esanik ez da, Txillardegiarentzat guztiz garrantzitsua da, bera euskaltzale huts izanik, eta Mitxelena hizkuntza kontutan *auctoritas* gorena.

Edukiaren aldetik bat etorrira ere, bazegoen alderik bien artean. Mitxelena ez zuen uste batasun hori epe motzean egingarria zenik, ezta gutxiago ere: «Nire ustez, alegia, gutxi gora bera bat gatzoz. Ez utz uste, ordea, gaur batasunik egin ditekunik. Batasun bidean jarri bai».

Beraz, egutegian ez zetozen bat, baina bai eredu. Hori zen inportantea Txillardegiarentzat, bai baitzekien nondik jo. Txillardegi garbi ikusiko zuen denbora hori laburtzeara, eta eredu landuz Mitxelena baiezkoa berresteara. Sei urte geroago lortzen du hori, Baionako erabakiekin; eta 10 urte geroago agertoki amestu, 1968ko Arantzazuko Biltzarrean.

Baionako Biltzarra (1964)

Data horretan hasten da, neurri batean, batasunaren historia. Data horretatik aurrera sekulako abiadura hartzen du batasunaren proiektuak, geldiezina.

1963an Txillardegi Euskaltzaindian dimisioa eman zuenean, Jose Maria Lojendio euskaltzainburuak euskara batuaren prozesua bideratuko zuela agindu omen zion. «Guk, halere –dio Txillardegi–, hitzez eta luzamenduz asperturik, areago itxaron gabe, geure kasa jokatu hastea erabaki genuen; proposamen mailan bederen Euskara Batuaren proiektu bat Baionan, eta Euskal Idazkaritzaren bitartez, abiaraztekoan deliberatuta (*Euskal Herria helburu*)».

Txillardegiren gidaritzapean urtebetez lan egin zuen lan-talde horrek, astero bilduz. Taldean hartzen ziren erabakigaiak, aldian-aldian, euskaltzaleen artean banatu ohi zituzten Euskal Herrian zehar, iritziak jasotze aldera.

Baionako erabaki horietan orpoz orpo jarraitu zitzaion Txillardegik sei urte lehenago Euskaltzaindiaren Bilboko Euskaltzaleen Biltzarrean aurkeztu zuen 'Batasunaren bidea' txostenari. Oraingoan, landuago, osatuago eta didaktikoki aurkeztua dator, baina funtsean 1958ko txosten hura bera da 1964koa.

Baionakoa egiazki maisukiro landuriko egitasmoa izan da bere osotasunean, oreka handiz. Lan-taldean aniztasuna bilatu zuten, inor-txo ere kanpoan utzi gabe: euskalki guztiek zuten ordezkariren bat; politikioki alderdi nagusi guztietakoak zeuden; idazle, irakaste eta euskaltzainak tarteko ziren; iritzi eta aholku eske euskaltzaleengana jo zuten.

Ez zen sortu Euskaltzaindiari kontra edo alternatiba gisa, kontrara baizik. Erabakiok onar ditzan dei egiten zaio euskaltzale orori eta, zertan esanik ez, bereziki eta espresuki Euskaltzaindiari.

Azaroan idatzi zion gutunean (1994an *Euskal Herria helburu* liburuan argitaratua eman arte ezagutzen ez genuena, bestalde) egiaztatzen da Mitxelenak begi onez ikusi zuela Baionako proiektua: «Biziro ongi iruditzen zait artu duzuten asmoa eta ez asmoa bakarrik. Esaten didazunaz neurtu bear baldin badut, tajuz eta zuzen ari zerate lanean. Ortografiarekikoa, ederki erabakita iruditzen zait. [...] Eder baiño ederrago iruditzen zait zuen asmoa eta ez asmoa bakarrik, baizik eta, orrezaz gainera asmoa mamitzen asi zeraten bidea. Ene bedeinkazioa ere emango nizuke gogo-gogotik, orretarako eskurik banu».

Bedeinkaziorako ez, baina onarpenerako bazuen eskua Mitxelenak. Txillardegik bazekien orain ereduaz gainera bideak ere bazuela Mitxelenaren onarpena edo bedeinkazioa.

1958tik aurrera segurutik jokutzen du Txillardegik: ereduaren onarpena segurtaturik, egutegia manciatzea dagokio berari. Albait arinen lortzea, alegia. Euskaltzaindian kide izatetik emandako dimisioa ere klabe horretan uler daiteke, euskararen akademiaren barruko epelkeria salatuz erabakiak hartzeko ordua aurreratzeko. Urte berean bilera egiteko exijitzen dio euskaltzainburuari. *De facto*, Lojendio euskaltzainburuaren konpromisoa erdiesten du, lehenbait lehen helduko zaiola gaiari.

Baiona eta Arantzazuren artean, lau urte horietan, sekulako abiadura eman nahi dio prozesuari, batez ere Euskal Idazleen Elkartearen bidez, euskara batuaren alde posizionatzeko ezker-eskuin eskatuz.

Arantzazuko Biltzarra (1968)

Euskaltzaindiak, 1968ko udazkenean, euskaltzainak eta euskaltzaleak bildu zituen Arantzazun erakundearen sorrerako 50. urteurrenari ospatzeko. Biltzarrek gai bakarra zuen: batasuna, euskara batua.

Hilabete batzuk aurretik, ekainean, hainbat idazle Ermuan bildu zuten, euskara batuaren inguruan, giroa berotu eta Euskaltzaindia presionatzeko, esango nuke. Txillardegik Ermura ere txosten bat bidali zuen.

Arantzazuko jardunaldietan guztiz nabarmena izan zen Mitxelenaren protagonismoa eta gidaritza, maisu papera. Txillardegik ere izan zuen berea, Mitxelenaren bidez. Muga pasatzerik ez eta, ezin izan zen bertan egon, idatzi bidez baizik. Bere proiektua, hori bai, oso presente izan zen. Baionan adostutakoa neurri on batean bere egin zuelako Mitxelenak batez ere.

Mitxelenak Arantzazun Txillardegik Baionan baino zabalagoetik hartu zuen gaia, 'Ortografia' txostenean. Errazenetik zailenera hone-lai sailkatzen ditu Mitxelenak erabaki beharreko sailak: «a) Idazkera edo ortografia; b) Antzinako euskal-hitzen formak; c) Hitz berrien eraketa eta bestetandik hartuen forma; d) Morfologia: izena (izen-ordea) eta aditza; e) Joskera».

Bere txostenean, Mitxelenak ez ditu ezkututzen Baionako erabakiak; kontrara baizik, behin eta berriz egiten die erreferentzia.

- Ortografiaz ari dela, hona hemen abiapuntu erabakigarria: «1964-can Baiona'n egin zen biltzarren erabakiak hartzen ditut oinarritzat, punturik gehienak astiroago ukituaz».
- Sail bereko seigarren puntuan ere: «H-rekiko hauzian ere, orain-go joerari segituz, Baiona'ko erabakiak har ditezke oinarritzat».
- Morfologiaren sailean, izenari dagokionez, Baionakoa gorde eta indartzea proposatzen du: «Izenari buruz, Baiona'ko erabakietan hain gogoan duten bereizkuntza guk ere gorde eta indartu behar dugu, betidanikoa eta alde guztietakoa denez gero».
- «Ongi deritzat, erabat harturik behintzat, Baiona'n izenaren gainean erabaki zutenari».

Nori berea. Txillardegik esana da: «Guk bultzatu genuen, baina Mitxelenak jarri zion zigilua. [...] Bera gabe ez zen sortuko euskara batua» (*Herria*, 2011-02-12).

Batasuna osatzen eta zabaltzen

Txillardegi beldur zen, erabakiak paperean gelditzearen beldur. Arantzazura bidalitako txostenean hala dio: «Arrisku bat dago, nere ustez, erabaki batzuk harturik ere: erabakiak gero ezagutaraziak ez izatekoa; eta, hori aitzekia, lehengo modura ekitea. Hau gerta ez dedin bide bakar bat somatu uste dut nik: erabakiei zabalkunde haundia ematea. Aldizkarietan, euskal ikasguetan, edonolako erakundee-tan, erabakiak azaldu behar dira, hortarako ikastaldiak herriz herri antolatuz esate baterako. Idazleen eskuetan dago erabakien indarra; beraz, egiñahalak egingo dira euskal idazleen artean oso bereziki, euskera osotua zabal eta itsats dedin».

Euskara batuaren prozesu eraikitzailearen lan garrantzitsuena titulu akademiko egokirik gabe egin zuen, filologia edo linguistika titulurik gabe, alegia. 1976 arte ez zen euskalaria, euskaltzalea baizik. Eta lortu zuena lortu zuen, euskalariak bere lana aintzat hartu eta ontzat ematea, besteak beste.

Eta, halako batean, ikasketak sakondu eta titulua lortu zuen. 1976an linguistikako lizentzia egin zuen Parisko Sorbona Unibertsitatean, eta fonologia irakasten hasi Deustuko Unibertsitatean. 1981-1982 ikasturtean AEBetako Los Angelesko UCLAn fonologia eta fonetika ikasi eta bueltan EHUn hasi zen eskola ematen. Aldi berean, euskal azentuari buruzko doktore tesia burutu zuen Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. Aspaldiko Txillardegi ingeniaria orain hizkuntzalaria da, eta doktorea.

Pasadizo akademiko horiek garrantzi handia dute bere biografian ez eze euskalaritzan ere: hizkuntzalaritzan estatus akademikoaren jabe eta unibertsitatean irakasle, aukeran du euskararen alorrean ikerketak egitea.

Eta horrelaxe egiten du, baina ez du bazter uzten euskara batuaren sozializazioa, zabalkunde lana, Arantzazun proposatu bezala, erabakiok bazter guztietara iritsi zitezen jarrera proaktiboa hartzen baitu.

Ikerketak eta zabalkunde lanak, biak, egiten ditu gramatikan, fonologian, morfologian, azentuan.

Txillardegiren lana baloratzeko orduan, Gotzon Aurrekoetxearen ikuspegia baliatzen dut, beste askorena ere ordezkatzan duelakoan:

«Txillardegi dugu nire ustez euskararen normatibitate edo arautzeaz gehien arduratu den edo gehien idatzi duen hizkuntzalaria: euskara batuaren beharra inork baino ozenago eta lau haizetara aldarrikatu du; euskara batuaren eragile, teorizatzaile, txostenegile, gidatzaile, hedatzaile eta defendatzaile handienetakoa dela esaten badugu (eta gauza asko esaten dugu) ez dugula huts handiegirik egiten esan daiteke. Eta hori diogu, bai euskara batuaren sorreran funtsezko lana eta sortu ondorengo garapenean aitzindari lana egin duelako» (Txillardegi eta Euskara Batuaren kondairaz hitzaldia, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunea, 2004-10-05).

1970eko bihurgunean, euskararen garrantzi intelektuala landu zuen. Estrukturalisten autoritatea baliatuz erakutsi nahi izan zuen, hizkuntza gainjantzi hutsa dela ziotenen aurka, hizkuntza egiaz eta benetan herri baten arima eta nortasunaren zutabea zela. Esaldi bat nahikoa da Txillardegiren tesi nagusia laburbiltzeko: «Hizkuntza da herri baten sorkaririk funtsezkoena, bere nazio-jakintzaren oinarria. Hitz batez: Hizkuntza da herri baten arima».

Geroago, 1994an, *Hizkuntza eta pentsakera* (1972) liburuan erabiliriko estrukturalismoa xaharkituzat jo zuen. Euskararen etsaien ideologien kontra borrokatzekotan prestatu zuela aitortzen du. Baina, 1970eko giro nahasian, liburuak bere funtzioa bete zuela iruditzen zaio.

Landu zuen beste pentsamendu lerroa zera izan zen, munduko baina bereziki Europa zabaleko herri txikietan hizkuntzaren paradederoa, Suomitik hasita. Hizkuntz pizkundeek nola funtzionatzen zuten herri pizkondeetan gure ezaugarri bertsuko herrietan. Azken aldion herri baltikoetan jarria zuen arreta. *Branka* aldizkaritik batez ere egin ohi zuen segimendua, baina, maila apalagoan, egunkari eta astekarrietatik ere bai.

TXILLARDEGI EUSKARA BATUAREN AITA? EUSKARA BATUA TXILLARDEGIKERA?

Gogoan dut 1978an Euskaltzaindiak Bergaran antolatutako bilerakoan Krutwigek nola esan zidan Euskaltzaindiak aukeratu zuten eredu «txillardegikera» dela.

Zein da Txillardegiren lekua batasunaren prozesuan? Gai horren inguruan asko esan eta idatzi izan da.

Batasunak egile bat baino gehiago du eta batasun-prozesuak eragile ugari izan ditu, egia da, batzuk izen propioarekin, noski; baina ez da ahaztu behar neurri handi batean lan kolektiboa izan zela, kolektiboa eta soziala. JAKIN aldizkaria da euskalgintza sozialaren adibiderik hoberena, lehen ordutik gaur arte historia osoan. Filologo eta hizkuntzalariek ez dute esku hartzen lehen orduan, nahikoa berandu baizik. Koldo Mitxelena katedradunak ireki zuen Arantzazuko Biltzarrean, 1968an, etapa berri bat. Hortik aurrera, Euskaltzaindiak eman zion babes instituzionala; baina babes sozialak ez du sekula huts egin, eta horri esker egin du aurrera, nire ustetan.

Inork gutxik ukatuko du Txillardegiren protagonismoa. Testigantza batzuen berri emango dut segidan:

- Jean-Louis Davantek sarri kontatu du Baionako Biltzarra eta ondoko historia, euskararena eta Txillardegi nahiz Euskaltzaindiarena. Honela banatzen ditu Txillardegiren eta Mitxelena-ren eginkizunak: «Txillardegi euskara batuaren aita dugu, gero Mitxelena gozaita, eguzaita, aita pontekoa izango bazen ere» ('Txillardegi, poliaitzindaria', *Berria*, 2012-03-22).
- Xabier Kintanak: «Euskara batuan bi apostolu egon ziren, eta ebanjelista bat. Apostolu bat prosan izan zen Txillardegi, beste apostolua poesian izan zen Aresti, eta Mitxelena izan zen ebanjelista» (*Berria*, 2014-10-01).
- Irakurri berri diogu Gotzon Aurrekoetxeari: Txillardegi izan da «euskara batuaren eragile, teorizatzaile, txostenegile, gidatzaile, hedatzaile eta defendatzaile handienetakoa. [...] morfologian, fonologian, azentuan... aitzindari izango dira bere lanak» (2004).

Eta aitzindari?

Txillardegik berak ez du bere burua aitzindaritzat hartzen, ez bera eta ez Mitxelena. Krutwigi aitortzen dio ohore hori: «Auzi horretan Krutwig zen benetako profeta eta ez Mitxelena. [...] 1950eko hamarkadaren hasiera horretan tema bat zuen etengabe errepikatua. Gure hizkuntzak derrigorrezkoa duela esaten zuen gaurlotzea eta batzea» (Joxean Agirre: *Hitza hitz. Txillardegirekin solasean*, 1996).

Egia esan, ez da dudarik Krutwigen aitzindaritzaz. Aho batez onartzen zaio.

Mitxelena honela banatzen ditu dominak, Gabriel Arestiri idatzi zion guttun batean: «Ni ez naiz deusen iturburua gure artean, beharxeago agertuko dizudan puntu batean izan ezik. Krutwig-ek berak eskerrak eman zizkidan bakanka baizik aipatzen ez zutenean, zor zitzaiona aitortu niolako: orain, urteen buruan, oparoago aitortuko nioke zor hori. Euskal gaietan, zeuok egin duzue ia egin den guztia (nik, haatik, ahal nezakeelarik ere, aterik giltzatzen ez nizuelarik), baina zuen artean dago Larresoro ere: zorretan gaude honekin ere» (Salamanca, 1973-11-17).